

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Ezkerra: erabaki ezinik egon eta erabakitasunez ekin?

Interesez jarraitu ditut EH Bilduk gonbidatuta Europako ezkerren ordezkariak gure artean esan dituztenak. Krisian dela ezkerria entzun dut, urgenteak diren arazoei erantzuteko gaitasun gabe. XX. mendea bukatu dela eta XXI. mendean ezkerrek benetako boterea nola eskura dezakeen zalantza betetako galdera dela. Politika puska txikitan zatitu den honetan, alderdi edo ideologia bakar batek jendearen gehiengoa ordezkari dezakeen ideiak iraganeko erlikia dirudi. Baikortasun berri baterako arrazoiak eta adibideak falta ez diren arren, energia eta ikonoklasia freskoa dakarten mugimenduak ugaltzen arren, oraindik, boterea eskuratzeko aukera erreala baino, bat egiten ez dutenen protesta olatu gisa adierazi dira.

Globalizazioaren indar suntsitzaileari, lan tradizionaren eta ezkerrentzat sakratua den "langile" kontzeptuaren gainbeherari, antisistemaz mozorrotutako eskuin berri baten indartzeari nola aurre egin ez du asmatzen ezkerrek. Globalizazioaren aurkako oposizioan eskuina da liderra, bertako izate sentimenduekin batera, kanpoarekin eta kanpotarrekiko errezeloa azpimarratuz. Goizeko txandan milaka langile fabrikara sartzen zireneko egunerokoa aldatu egin da. Aurrera egiten saiatuz nahiko lan badu jendeak, denboran oso mugatuak diren lanen eta ugaltzen doazen autoenpleguen garaian.

Eta, aurki, automatizazio zorrotz baten uhin indartsua etor liteke, urte gutxian freelance bezala lan egiten dutenen kopurua biderkatuz. Gainera, gero eta maizago, langileez hitz egiten da, elkartasunaren ikur baino indibidualizazioaren totem gisa aurkeztuz.

Hain abiada handikoak eta aldakorrek diren garaiotan, ezkerrek ez du lortu ahal duen guztia lortzen asmatzen, besteak beste, ez dakielako zer nahi duen. Ez dauka ziurtasunik, ez daki itxaron egin behar duen edo erasoak joko behar duen. Ez du erabakitasunez ekiten, ez ditu gainontzekoak hala egitera inspiratzen, eta, segur aski, horren arrazoi nagusia erabaki ezinik segitzen duela da.

Ez dago ezkerreko alderdirik betirako denik. Tradizio politikoak gainbeheran sar daitezke, gero forma berriak hartuta berragertzeko, edo, sentzilloki, desagertzeko. Ziurtasunez esan daitekeen bakarra zera da: ezkerrek ira-

gan mendea atzean utziko badu, modernitatearen errorei erantzuten dieten ideia eta konbikzioekin egin behar du. Norabide horretan, esnatzen, ulertzen ez esateagatik, hasi berri baino ez dela dirudi.

Inork ezin du esan erronka erraza denik. Asmatu egin behar du. Asmatu, erabaki zuzenak hartzen; asmatu, existitzen ez diren formulak asmatzen. Soluzioak bilatzeko behar diren tenplea, enpatia eta sen ona, egoeraren larritasunak eskatzen duen tentsioa, antagonismo eta intentsitate altuarekin orekatu behar dira. Zentzu pragmatikoa behar du, Rosa Luxemburgek zioen bezala, jendeak orain dituen beharrei erantzun praktikoa eman, ez egoera hondatzen utziz horrek iraultzarako baldintza hobeak ekarriko lituzkeelakoan. Eta beti-beti, printzipio eta idealetan sendo mantenduz.

Aldaketa oro susmagarria izan ohi da, ia-ia iraganaren krimen bat. Europar bezala Euskal Herrian ere, gauza as-

Esperantzaren bidetik egin behar du bidea ezkerrek, ez desesperantzak uzten duen aukera bakarra hautatuz ala inpazientziak. Ez berehalako emaitzen itolarrian. Egiteko grinarekin, ez eginda egotearen nahiarekin

ko aldatu dira denbora gutxian eta askoz ere gehiago aldatuko dira. Europako ezkerria bezala EH Bildu bera ere, guztiz kontrolaezina den pronostiko idatzirik gabeko abentura politiko horretan sartuta dago. Ahalegin hori aurkikuntza etengabea izango da, kontraesana politikaren baldintza denez gero, zorionez, kontraesanez beterikoa. Bizitzan bezala politikan ere ez daude soluzioak, martxan dauden indarrak baizik. Horiek sortu, elikatu eta indartu behar dira, gero, soluzioak etortzeko. Jokoa bezala, politikan ere apustua ez dela errenta jakinda. Esperantzaren bidetik saiatuz beti, ez inpazientziaren bultzadak eraginda ala desesperantzak uzten duen aukera bakarra hautatuz. Europako ezkerrek eta EH Bilduk ez dute berehalako emaitzen irrikaren itolarrian edo besteek egiten dituzten gauzen esperoan jokatzetik. Eta egiteko grina behar du beti, ez eginda egotearen nahia. •